



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ohikoa

Eguna: 2020.11.10

Ordua: 18:00tan

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2020/10/01ko akta aho batez onartzen da.

2. 2020KO AURREKONTUEN ALDAKETA.

Idazkariak Arantzako Udaleko aurrekontuetan egin beharreko aldaketen berri ematen du, izan ere 2020ko urtean, COVID-19ak eragindako egoera dela eta, zenbait sarrera eta irteera ez dira aurreikusitakoak izan. Era berean, Arantzako Udaleko 2020 urteko Exekuzio Oinarrien 13. Oinarriko 1. Puntuari xedatutakoari jarraituz, zerga izaerarik ez duen diru sarrera, gastuen atalean kreditua sortzeko eta aurrekontu aldaketa gauzatzeko Osoko Bilkuraren akordioa nahikoa dela dio.

Bertzeak bertze, egin beharreko aldaketen artean bik Osoko Bilkuraren akordio bidez bideratuko zirela azaltzen du Idazkariak. Alde batetik, *Ostolo kobazuloaren kudeaketa*, izan ere ez zegoen aurrekontuetan aurreikusia eta honen inguruan Arantzako Udalak 1.568'62 euroko diru-laguntza jaso du. Bertze aldetik, *artxiboa berritzea* partidari hasiera batean 2.000 euroko diru-laguntza jasotzea aurreikusten zen, baina jasotako diru-laguntza 5.000 eurokoa izan da azkeneko, beraz, kreditu igoera eman daiteke. Udaltzarak hau jakinik eta aurrekontuan aldaketa egiteko premia ikusirik, aho batez onartu du:

- 1.- Sarrerengatik kredituak sortzearen bidezko aurrekontu aldaketak onartzen da.
- 2.- 1.568'62 euroko kreditua sortzen da, Arantzako Udaleko 2020ko aurrekontuen irteera atalean "1 3360 21001 Ostolo kobazuloaren kudeakera" izeneko partidari.
- 3.- 3.000 euroko kreditu igoera bat ematen da, Arantzako Udaleko 2020ko aurrekontuen irteera atalean "1 9200 62900 Artxiboa berritzea" izeneko partidari osotara 8.000 eurotan geldituz.

3. BEHEKO KARRIKAKO HAUR PARKEA HORNITU ETA INSTALATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Idazkariak Beheko Karrikako haur parkearen hornitze eta instalatzearen inguruan egin beharreko kontratazioaren berri ematen du. Kontratazioa abiatu zuen plegu erregulatzailerak 2020ko urriaren 1ean onartu egin ziren orduko Osoko Bilkuran. Hau horrela izanik, gonbidatu egin ziren bostz enpresetatik lauek beraien proposamenak aurkeztu dituzte.

Hau horrela izanik, Udaltzarak proposamenak berrikusi dituzte. Ikusirik prozeduraren emaitzak eta jakinda Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legeak azaltzen duena, Ohiko Osoko bilkurak erabaki du:

- 1.- Sumalim Plaugrounds S.L. enpresari esleitzea kontratua, bera izan baita puntuaziorik hoberena jaso duena 72'5 punturekin.
- 2.- Esleipenaren eraginkortasuna 10 egun naturalez eten egitea, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik kontatzen hasita. Esleipena eten egiten da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, erreklamazioa ebatzi arte.
- 3.- 7 eguneko epean esleipedunak kontratuaren betebeharrak betetzeki %4eko bermea jarri beharko du.
- 4.- Kontratua administrazio-agiri bidez formalizatu beharko da, Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta esleipenaren eraginkortasuna eten egiten den epea amaitu eta hurrengo 15 eguneko gehieneko epearen barruan.

5.- Akordio hau prozedura honetan parte hartu dutenei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

4. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO MOZIOA.

Alkateak azaroaren 25ean Indarkeria matxisten aurkako Nazioarteko Eguna dela eta EH Bildutik jasotako mozio-proposamenaren berri ematen du. Hau horrela izanik, eta Arantzako Udalak gaiaren inguruan bere jarrera azaldu nahian indarkeria matxistaren aurka egiteko, Osoko Bilkurak erabaki du:

1.- Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunari buruzko mozio-proposamena onartzea.

2.- Adierazpen instituzionala bete eta EH Bilduko dagokio atalera bidaltzea bere ezaguera eta ondorioetarako.

5. ALKATEAREN EBAZPENAK

121/2020-146/2020 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

6. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe 20:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

